

Maixan Merkapide

«Ez dugu euskaraz sortzen publikoa hesteko»

Euskal kulturaren barrenak hurbil-hurbiletik ezagutzen ditu Maixan Merkapidek (Izura, Nafarroa Beherea, 1959). 30. urteurrena ospatzen duen Izurako Haize Berri elkarterainoko bidean maiz kausitu du kultura profesionala vs. herrikoa eztabaida.

Testua eta argazkia:

KRISTINA ENCINAR

Enpresa kudeatze ikasketetatik euskal kulturara.

Bai, enpresa kudeatze ikasketak egin eta berehala hasi nintzen etxegintza egitura batean, sei urtez. Gero sartu nintzen Euskal Herriko Kultur Etxean, hain zuzen ere Euskal Kultur Erakundea eratu aitzin, pizkundearen bidez Baionan sortu zen egituran, gero desagertu zena hiru urteren buruan. Hortik EKE sortu zen eta ni Frantses Kultur Ministerioaren babespean Baionan sortu erakundean izan nintzen, Eszena Nazionalan, frantses kultura eta arte profesionala kudeatzen eta bultzatzen duen egituran. Zinez egitura indartsua, 15 permanenteren lanposturekin, baina euskal kulturak ez zuen hor tokirik. Hainbat eztabaidaren ondotik, erabaki politiko bat hartu zen, EKE sortzea euskal kulturaz arduratzeko, eta bistan dena, hola deitzen zuten politikoek, oreka baten izenean behar zela ere beste egitura bat frantses edo beste kulturez arduratzeko. Egia erran momentu horretan interesatua nintzen kultura profesional hortaz, eta aitortzen dut momentu horretan pentsatzen nuela berdin Eszena Nazionalako



lanak gehiago interesatuko ninduela EKEkoak baino. Hori zen 1989-90 aldean. Eszena Nazionalan 15 urtez egon naiz.

Nolako bizipenak ukan dituzu epe horretan?

Izugarriko momentu aberatsak bizi ditut, antzerkiarekin eta arte-sorkuntzekin, osoki profesionalak ziren artistekin, eta denbora berean

emeki-emeki ikusten nuen ere egitura horretan nolako iritzi okerra zen euskal kulturari buruz. Hori niretzat zen nire nortasuna ukatzea bezala... eta egia da ez nintzela ongi sentitzen toki horretan. Momentu batean utzi dut, profesionaltasunaren mugak ere agertu zaizkit, eta azken finean egin dut, ez gibelerara, baina iritzia aldatu dut. Ohartu naiz azken finean hor sortzen zen kultura urruntzen zela nik sentitzen eta bizi nahi nuen kulturatik. Erran nahi dut, antzokietan eta sortzen zen kultura hori zen naski elitista, eta azken finean behar izan dut berriz euskal kulturarentzat lan egin. Hortik landa Haize Berrin izan naiz, bost urtez.

Eszena Nazional horretan ez zen beraz euskal kulturarentzako tokirik, euskaraz ekoiztua izan edo ez.

Egitura horren araudietan ere argi zen bakarrik artista profesionalak zutela tokia. Orduan, euskal kulturaren baztertzeko aitzakia nagusia zen, jakinez bereziki Iparraldean profesional guti zirela momentu horretan; bai eta ere EKE hor zela euskarari lotuak ziren ekintzak berari atxikitzen zirela. Baina bazen beste zerbait egia errateko, askotan

eztabaida gogorak entzun dituzer da euskal kultura? Existitzen da? Hori entzun dut nik hor ez du hogeit urte, eta hamar urte, hori entzun dut. Ez zen tokirik ere ematen euskararentzat komunikazio dokumentuetan, bakarrik prentsaurrekoetan, ni bakarrik nintzen euskalduna eta parte hartzen nuen, baina dokumentuetan ez da sekula hitz bat eman euskaraz. Hori kultura egitura nagusi batean, e? Euskal kultura bigarren edo hirugarren, edo bosgarren mailan ematen zen. Gogorra zen hori bizitzea.

Gaur egun Iparraldeko Herri Administrazioetan ugaltzen ari dira euskararen aldeko planak.

Pozten naiz hori ikusteaz, zeren eta guk Euskal Konfederazioan abiatu genuen lan hori herriko etxeekin, adibidez. 2002an abiatu lanean jada diagnosiak aski ezkorak ziren, sentitzen zen euskararen presentzia eza herriko etxeetan eta administrazioetan. Momentu horretan egin behar izan zen ikerketa juridiko bat segurizateko dokumentu ofizialetan euskara ere ematen bazen, testuak ez zuela erdarazkoaren balioa galduko. Hori 2002an zen, 2009an gara jadanik, hau da, prozesu horiek denbora aldetik sobera luze dilatatzeko dira. Egia erran, ahalegin hori gogoratzea eta aldi berean gaur ikustea zoritxarrez lege aldetik ez dela aitzinamendurik izan, edo konstituzioaren aldaketa hori ez dela egiazko aldaketa, bortitza da. Baina hori ikustea da nonbait Euskal Konfederazioak eraman lanaren

ondorio on bat, teoriarik bederen. Berriki entzun dut Nafarroa Beherean 40 herriko etxek izenpetu dutela engaiamendu bat hamar puntutan euskarari ofizialtasuna emateko. Teoriarik izan daiteke akordio ona.

Euskarari emandako arreta hori ber gisan euskal kulturari ere ematen zaio?

Arreta ematen zaio lehen baino errazago, baina denbora berean gibelean ahalak aski ahul gelditzen dira, nahiz eta borondateak agertzen diren. Euskara eta Nafarroa Beherea hartuz, lurralde euskaldunena, orain ari da euskara desagertzeko, ez du atentziorik ere, eta sentitzen den arreta edo engaiamendu

**Eszena Nazionalaz:
"Ohartu naiz sortzen zen kultura urruntzen zela nik sentitzen eta bizi nahi nuen kulturatik"**

horien gibelean ez da ahal sendoa. Gainera ez dira erabiltzen neurtzeko tresnak, ahal horiek eraginkor bilakarazteko. Urteak pasatzen ahal dira hola, eta egoera ez da aldatzen. Bada euskara bigarren mailan deneko iritzi orokorra, baina bada ere instituzioak edo kulturaren antolakuntzak sortu duen hierarkizazio hori, Antton Lukuk idatzi bezala. Hortik kanpoko proiektuak kanpoan geratzen dira laguntzetatik.

Piarres Larzabal baten lanak, adibidez, oso onak dira.

Piarres Larzabalek baditu antzerkiak arras onak, eta horiek nire ustez ez dute behar duten tokia, hizkuntza begiratzen da, ez kalitatea. Badira euskara jakin gabe hiru bider antzerki lan bat ikusi dutenak. Ez dugu euskaraz sortzen publikoa hesteko, sorkuntzak gure artean ukateko; jende deneri gozarazteko bortak irekiak dira. Dena den, sentsibilizazio handiagoa behar litzateke euskararen ezagutzeko eta erabiltzeko.

Eta diru-laguntzak ere eskasak...

Arazoa da euskal kulturaren ez diren elkarte ofizialek, Nafarroa Beherea batean adibidez, gureak baino hamar aldiz handiagoak diren aurrekontuak dituztela. Ez dugu galdetzen kopuru bera ematea, baina kontraesana da. Eragin eremua ahula dugu horrela, egutegi, komunikazio edota eskaintza aldetik kultura iraunkortasunez ekoizteko indarririk gabe.

Aipatu hiru ardatz nagusi Iparraldeko kulturaren bizkortzean aplikatzeko.

Zaindu antzerki sorkuntza, bereziki herrikoia; klasikoak bertaularatu eta antzerkilari gazteak bultzatu, ikusentzun saila eta film ekoizpena garatu; Hegoaldean ere hainbat urtez ez da euskarazko filmik egin, pentsa. Eta euskaraz bizi diren oasiak zaintzea, ez harresi batzuekin baina euskaraz benetan sentitzeko, pentsatzeko eta eztabaidatzeko naturalki, hizkuntza baten biziarazteko eta aberasteko. ■

INFOARTEZ



Hileroko Antzerki,
Dantza eta
Musika gida
zure eskura

www.artezblai.com